

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05

Tolosako Udaletxean, 2006ko urriaren 5ean, arratsaldeko 7:00tan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohizko osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Jokin Bildarratz Sorron, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:00 horas del día 5 de octubre de 2006, se reúne el Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia del alcalde, Jokin Bildarratz Sorron, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:

Jokin Bildarratz Sorron

Bertaratutako zinegotziak:

Olatz Peon Ormazabal
Jose Andueza Oyarzabal
Andoni Imaz Garmendia
Jokin Azkue Arrastoa
Yurre Peñagaricano Zubeldia
Jon Aldazabal Etxeberria

Itxaropena Urquiola Negredo
Andoni Iturzaeta Arbillaga
Kepa Diaz de Alda Imaz
Oscar Hugo Renedo Nieto
Jose M^a Vieites Gomez

Ez bertaratutakoak:

Onintza Lasa Arteaga
Jose Miguel Gomez Elosegui
Angel Bernardo Yañez Ares
Jorge Juan Outeiral Hernandez
Jose Luis Vilanova Alonso

Behin-behineko Idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Eguneko gai zerrenda

1.- Ondorengo aktak onartzea:

2006ko uztailaren 27ko Osoko Bilkurakoa.
2006ko irailaren 8ko Aparteko osoko Bilkurakoa.

Orden del día

1.- Aprobación de las siguientes actas:

Sesión ordinaria de 27 de julio de 2006.
Sesión extraordinaria de 8 de septiembre de 2006.

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05

- | | |
|---|--|
| 2.- Alkatetza dekretu hauen berri ematea: | 2.- Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía: |
| 2006ko uztaillaren 21etik irailaren 20ra bitartekoak (1317/2006- 1595/2006) | Del 21 de julio al 20 de septiembre de 2006 (1317/2006- 1595/2006). |

- | | |
|--|--|
| 3.- 2007rako Ordenantza Fiskalak aldatzea. | 3.- Modificación ordenanzas fiscales 2007. |
| 4.- Presoei buruz mozioa. | 4.- Moción sobre los presos. |
| 5.- Galde-erreguak. | 5.- Ruegos y preguntas. |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko: A continuación se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

1.- Ondorengo aktak onartzea:

**2006ko uztaillaren 27ko Osoko Bilkurakoa.
2006ko irailaren 8ko Aparteko osoko Bilkurakoa.**

1.- Aprobación de las siguientes actas:

**Sesión ordinaria de 27 de julio de 2006.
Sesión extraordinaria de 8 de septiembre de 2006.**

Ondoren, izenburuan aipatutako aktak, ahobatez, **onartu** dira.

- | | |
|--|---|
| 2.- <u>Alkatetza dekretu hauen berri ematea:</u> | 2.- <u>Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:</u> |
| 2006ko uztaillaren 21etik irailaren 20ra bitartekoak (1317/2006- 1595/2006) | Del 21 de julio al 20 de septiembre de 2006 (1317/2006- 1595/2006). |

Alkatetzak, 2006ko uztaillaren 21etik irailaren 20ra bitartean (1317/2006-1595/2006) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei, eta Udalbazkideak jakinaren gainean geratu dira.

- | | |
|--|--|
| 3.- <u>2007rako Ordenantza Fiskalak aldatzea.</u> | 3.- <u>Modificación ordenanzas fiscales 2007.</u> |
|--|--|

Jokin Azkue Arrastoa, Ogasun batzordeko lehendakariak, Ordenantzen aldaketa nagusien berri ematen du; irizpide nagusia KPlaren igoera, %4a.

Azaltzen du, diktamenarekiko aldaketa bat proposatu dela trakzio mekanikoko ibilgailuen zergari dagokiona, talde guztien adostasunez. Aldaketa hau zera da: Koefizienteak %4,50 igo beharrez, %4a igotzea.

Ondoren, 2007ko Ordenantza Fiskalak bozketara jarri dira eta, aho batez, indarrean dagoen legedia kontuan izanik, Udaltzatzak,

ERABAKI DU:

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05

Lehen.- 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, Ordenantza Fiskalak onartzea, guztia 2006ko urriaren biko Ogasun Batzordeko diktamenaren arabera, salbuespen honekin: Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruz proposatutako aldaketa - %4eko igoera.

Diktamena, aldaketa zehatz horrekin, eranskin gisa akta honi atxikitzen da.

Bigarren.- Hartutako akordioak eta bideratutako espedienteak jendurrean jartzea hogeita hamar eguneko epeaz, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 zk.dun Arau Foralak agindu bezala: Udaletxeko iragarki taulan, Gipuzkoako Lurralde Historiko boletinean eta egunkaririk zabalduenetako batean iragarkia argitaratuz.

Hirugarren.- Aipatutako erabakiak behin betikoak jotzea beste erabakirik hartu beharrik gabe, jendurreko erakustaldi hori inolako erreklamaziorik jaso gabe agortu bada.

Hala ere, erabaki diren akordio bat edo batzuk erreklamazio xede bihurtzen badira, Udalbatzak horiei buruzko erabakiak hartzera joko du, aurkeztu diren erreklamazioei buruzko ebazpenak emanez edo aipatu aldaketan behin-betiko testua onetsiz.

Alabaina, ez da erabaki berririk hartu behar izango jendurreko erakustaldiaren barru erreklamazio xede izan ez den edo ez diren akordioei buruz, akordio horiek behin-betikoz onartutakotzat joko baitira.

Laugarren.- Behin-betiko onespena erabaki ondoren, 2007.go urtarrilaren 1ean indarrean jarriko diren Ordenantzako Testu Bategina prestatzera joko da, hau da, aipatu data horretan indarrean jarriko diren Ordenantza Fiskalak beren eranskin eta guzti jaso dituen testua prestatzera joko da.

4.- Presoei buruz mozioa.

4.- Moción sobre los presos.

Hau da Antton Izagirrek aurkeztutako mozioa:

<p>Behin baino gehiagotan eskatu zaie Udal honetatik Estatu espainiarrari eta frantziarrari beraien espetxe politika aldatzeko. Presoen eta beraien senitartekoen aurkako mendekua beste oinarriak ez duen politika horrek, sufrikarioa beste ezer ez du ekartzen Euskal Herrira. Horregatik, euskal gizarteak berak ere hainbat aldiz, beste hainbat modutara eskatua du bortxazko eskubideen ukazio iraunkor horrekin lehen bait lehen bukatzeko.</p> <p>Urteetan zehar gizaki eta preso gisa dagozkien oinarriko eskubide denak zanpatu ondoren eta zigor osoa beteaz kanpora irteteko garaia iritsi zaienean, zigor berriak egotzi nahi zaizkie, Nazioarteko Zuzenbidearen oinarriko arau denak gainetik pasatu eta praktikan hil arteko zigorra martxan jarriaz. Kartzela politika hau Euskal Herrian ireki nahi den prozesu politikoaren kontrako norabidean doa.</p>	<p>Desde este Ayuntamiento se ha solicitado en varias ocasiones a los estados español y francés la modificación de sus políticas penitenciarias. Políticas basadas tan sólo en la venganza hacia los presos y presas y sus familias, y que únicamente proporciona sufrimiento para Euskal Herria. Por esta razón, la propia sociedad vasca ha exigido de diversos modos y en multitud de ocasiones acabar urgentemente con esta permanente y violenta negación de derechos.</p> <p>Tras haber sufrido durante años la conculcación de los derechos básicos tanto humanos como de presos, y tras el cumplimiento total de las condenas impuestas, se pretende imponerles nuevas penas, por encima de las normas básicas del Derecho Internacional, estableciendo en la práctica la cadena perpetua. Esta política carcelaria va en sentido contrario al proceso político que se quiere abrir en Euskal Herria.</p>
---	---

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05

<p>Presoak bahitu politiko gisa erabili nahi dituen kartzela politika honi emandako erantzun gisa ulertu behar da Iñaki de Juanaren gose greba. Abuztuaren 7an hasi eta gaur arte luzatzen den ekimen honek, herri eragile eta herritarren babesarekin batera estatu frantziar zein espainiarrek kartzela politika aldatzeko balio behar du. Ekimenaren gordintasunak, nozitutako injustizia uzten du agerian eta presoek eskubideen urraketak irauten duen egun bakoitzak, atzera ezinezko ondorioak sortu ditzake.</p> <p>Hau dena kontuan izanik eta instituzio publiko gisa, Udal honek herriaren aurrean duen ardura bere gain hartuaz, honako puntu hauek aurkeztu ditu Osoko Udal Batzarrean eztabaidatu eta onartuak izan daitezten:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Udal honek, euskal preso politikoei eta bereziki Iñaki de Juanaren aurkako zigor politika bertan behera utzi eta bere berehalako askatasuna exijitzen dio Espainiako Gobernuari. Era berean, Udal honek, bere elkartasun adierazi nahi dio Iñaki de Juanari.2. Udal honek, indarrean dagoen legea egikaritzuz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten eta zigorraren 2/3 beteta duten presoek askatasuna eskatzen du.3. Udal honek, euskal preso politikoen eskubide guztiak errespetatuak izatea exijitzen die frantziar eta espainiar Gobernuari, eta presoek egoera politikoen baitan truke-txanpon gisa erabiliak izatea ez dugula onartuko adierazten du. Era berean, presoak, Euskal Herriak Estatu espainiar eta frantziararen aurka duen gatazkaren ondorio diren heinean, konponbide prozesuan ere parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatzen du Udal honek.4. Erabaki honen berri, Rodriguez Zapatero Espainiako Presidenteari eta herritar guztiei emateko konpromisoa hartzen du Udal honek.	<p>La huelga de hambre de Iñaki de Juana ha de entenderse como una respuesta a esta política carcelaria de utilización de los presos como rehenes políticos. Esta iniciativa, que comenzó el 7 de agosto y se prolonga hasta la actualidad, debe servir para la modificación de las políticas carcelarias españolas y francesas. Su crudeza deja a la vista la injusticia sufrida, y cada día que pasa con la vulneración de los derechos de los presos, puede originar unas consecuencias irreversibles.</p> <p>Por todo ello, este Ayuntamiento, como institución pública y asumiendo su responsabilidad ante la ciudadanía, somete al debate y aprobación del Pleno de la Corporación los siguientes puntos:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Este Ayuntamiento exige el Gobierno de España la anulación de la pena política impuesta a Iñaki de Juana y su inmediata liberación. Asimismo, este Ayuntamiento muestra su solidaridad a Iñaki de Juana.2. Este Ayuntamiento solicita la liberación de los presos y presas que sufran enfermedades graves e incurables y de quienes hayan cumplido los 2/3 de su condena, en cumplimiento de la legislación vigente.3. Este Ayuntamiento exige a los gobiernos español y francés que respeten todos los derechos de los presos y presas políticas, y manifiesta que no aceptará su utilización como moneda de cambio en el curso de los acontecimientos políticos. Asimismo este Ayuntamiento considera que los presos y presas, en la medida en que son producto del conflicto entre Euskal Herria y los estados español y francés, tienen derecho a la participación en el proceso de resolución de dicho conflicto.4. Este Ayuntamiento se compromete a comunicar este acuerdo al Presidente de España, Sr. Rodriguez Zapatero y al pueblo en general.
--	---

Gobernu taldeak aurkeztutako mozioa hau da:

MOZIO ALTERNATIBOA	MOCION ALTERNATIVA
<p>“Ezker Abertzaleak”, Iñaki de Juanak eta oro har preso dauden euskal hiritarrek bizi duten egoeraren inguruan aurkeztu duen mozioaren aurrean, bertan sinatzen dugun udal taldeok honako mozio alternatiboa aurkeztu diogu Udal honetako Osoko Bilkurari:</p>	<p>Ante la moción presentada por la “izquierda abertzale” en torno a la situación los presos vascos en general y de Iñaki de Juana en particular, los abajo firmantes, presentan al pleno la siguiente moción:</p>

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05

<p>1.- Printzipio humanitarioekin, zein gizaki orenen eskubide eta askatasunekin dugun konpromisoaren baitan, askatasunik gabe dauden euskal hiritar guzti-guztien eskubideen errespetu zorrotza exijitzen dugu.</p> <p>2.- Eusko Legebiltzarrak espetxe politikaren arloan onarturiko akordio guztiak bere egin eta babestea adosten du, eta Ganbara horrek berak askatasunik gabe dagoen pertsona orok bere gizarte zein familia girotik ahalik eta gertuen egon behar dutela dioten akordio guztiak, eta, era berean, osasun eskubideekin lotura dutenak, hezkuntzakoekin, kulturakoekin eta berezko hizkuntzarekin, edota espetxe legeak berak jasotzen dituen onurez baliatzearekin.</p> <p>3.- Honela, indarrean dagoen legea egikaritzuz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten eta zigorraren 2/3 beteta duten presoek askatasuna eskatzen dugu.</p> <p>4.- Zehazki Iñaki de Juana presoak bizi duen egoerari dagokionez, kasu honetan ere, beste guztietan bezala, legeak eskaintzen dizkion eskubideak errespetatuak izan daitezela exijitzen dugu, bere askatasuna ekiditeko egin den lege erabilpen maltzurra gaitzesten dugularik.</p> <p>5.- Estatuko Gobernuari eskatzen dio praktikara eramanez preso dauden pertsonen eskubideen errespetuaren alde hartutako euskal erakundeen pronuntziamentuak.</p>	<p>1.- Partiendo de nuestro compromiso con los principios humanitarios y los derechos y libertades de todas las personas, exigimos también el respeto escrupuloso de los derechos de las que se hallan privadas de libertad.</p> <p>2.- Acuerda apoyar y hacer suyos todos los acuerdos adoptados por el Parlamento Vasco en materia de política penitenciaria, así como todos los acuerdos tomados por esa Cámara en los que se solicita que toda persona privada de libertad esté en la prisión más cercana a su entorno social y familiar y que se respeten sus derechos, tanto los que están relacionados con el derecho a la salud, a la educación, a la cultura y lengua propia, como los referidos al acceso a los beneficios que la propia legislación penitenciaria recoge.</p> <p>3.- De este modo, y en cumplimiento de la legalidad, exigimos que las personas con enfermedades graves e incurables, así como las que hayan cumplido las dos terceras partes de la condena sean puestas en libertad.</p> <p>4.- En concreto, ante la situación que vive el preso Iñaki de Juana, como en el resto de los casos, exigimos le sean respetados los derechos reconocidos por ley, y condenamos la utilización abusiva de ésta en aras a evitar su libertad.</p> <p>5.- Insta al Gobierno del Estado a llevar a la práctica los pronunciamientos adoptados por las instituciones vascas a favor del respeto de los derechos de las personas que están en prisión.</p>
---	--

Jendaurretik hitza hartu dute. Parte hartzea Tolosa Biziriketako espedientean jasoko da.

... Jose Maria Vieites Gomez, IU: “ *Apoyo la moción consensuada por el tripartito. No compartimos la moción de TB, ni en el fondo ni en la forma. Es un discurso de la izquierda abertzale. Estamos en una situación de democracia donde todos tenemos que poner nuestras capacidades políticas para que la democracia sea un marco de convivencia.*”

... Oscar Renedo Nieto, PSOE, muestra su duda por la moción, ya que no viene firmada por ningún colectivo o asociación y debería ser asumida por un grupo político y presentarla como suya.

La Secretaria Acctal manifiesta que, una moción puede ser presentada por persona física o jurídica, y que además, su inclusión en el orden del día implica una aceptación de la moción a efectos de su debate.

... Jokin Bildarratz Sorron, Alcalde, ante la duda manifestada por el concejal socialista, señala que: “*No tengo inconveniente en hacer nuestra la moción.*”

2006.10.05

- ... Oscar Renedo Nieto, PSOE; “Nos reafirmamos en nuestro compromiso con los principios humanitarios, con los derechos y libertades de todas las personas. Nos reafirmamos en nuestra confianza en el estado de derecho y en el poder judicial, por tanto, votamos negativamente a la moción presentada por Antton Izagirre y vamos a abstenernos con el que presenta el equipo de Gobierno.”
- ... Andoni Iturzaeta Arbillaga, EA: “EA bezala, eta giza eskubideetaz ari garenez, dudarik gabe mozioaren alde gaude.” Tolosa Biziriketako ordezkariak esandakoari puntualizazio bat egin dio: “Ez zait gustatzen afirmazio bat, preso politikoak direla esan da, eta nere ustez, ez daude kartzela zigorra betetzen ideia politikoarengatik soilik. Esan beharra dago ez nagoela batere ados esandako gauzekin.”
- ... Alkatea ados azaltzen da Andoni Iturzaetak gai honi buruz egindako planteamenduarekin. “Ez dira presoak txanpon bezela erabili behar. Jende asko dago bere eskubide zibilak eta bere bizia arriskuan jartzen dutenak, konflikto oso bat da. Guk beti salatuko dugu giza eskubideak urratuta daudela. Ea posible zaigun desberdintasunak alde batera utzi eta prozesua aurrera eramaten.”

Mozio alternatiboa bozkatu da eta PNV, EA eta IU alderdien aldeko botoekin eta PSOE alderdiaren abstentzioarekin, gehiengoz, mozioa **onartu** da. Ondorioz, beste mozioa ez da bozkatu.

Gai zerrendatik kanpo, Udalbazkideak gaiaren premiatasunarekin ados egonik, ondorengo gai honi ekin zaio:

Acuerdo en relación a los expedientes de Modificación de las Normas Subsidiarias relativos al área RE.1 Ensanche Laskorain y en relación a las áreas R.45 Piscinas Igarondo, I.6 Elduarain y R.9 Ibarralde.

Las Normas Subsidiarias de Planeamiento municipal de Tolosa vigentes, definitivamente aprobadas el 28 de febrero de 1989, establecen en relación al edificio sito en el número 1 del Paseo de San Francisco (área RE.1 Ensanche Laskorain) la consolidación del uso recreativo que en este inmueble se daba, con el Salón Iparragirre, en la extensión que este concreto establecimiento ocupaba (la totalidad de la planta baja y planta primera y parte de la planta segunda); sometiendo el resto del inmueble a los usos generales de esta área RE.1 Ensanche Laskorain.

Recientemente, la Corporación ha tramitado un expediente de Modificación de las Normas Subsidiarias (provisionalmente aprobado el 28 de marzo de 2006 y pendiente de aprobación definitiva en estos momentos), por el cual esta afectación singular al uso recreativo del Salón Iparragirre era levantada, autorizándose en el volumen ocupado por este establecimiento los usos generales admitidos en esta área RE.1 Ensanche Laskorain.

No obstante, y si bien con carácter general, los inmuebles sitos en este ámbito RE.1 Ensanche Laskorain tienen autorizado el uso de vivienda en planta baja, siempre que cumplan con determinadas condiciones técnicas, no parece oportuno admitir este uso respecto de la planta baja de este inmueble nº 1 del Paseo de San Francisco, (al igual que en el resto de inmuebles sitos en este Paseo, incorporados a las áreas R.15 Impares Laskorain, R.16 Ixaac López Mendizábal, R.18 Villas San

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05

Francisco, R.13 Arbol de Gernika y R.14 Cine Leidor). Por ello, entre los usos autorizados para esta planta baja en el código de determinaciones del documento tramitado se debe excluir esta posibilidad.

Por otro lado, este Proyecto de Modificación de las Normas Subsidiarias obvió efectuar la previsión de los mayores espacios libres requeridos por el incremento de la densidad de población, requerimiento exigido por el artículo 49 apartado 2 y artículo 12 apartado 1 letra b del Texto Refundido de la Ley del Suelo de 1976.

A tenor de lo establecido por los artículos 161 apartado 2 y 25 apartado 1 letra c del Reglamento de Planeamiento Urbanístico, este requerimiento de más espacios libres se cuantifica en 5 m²/habitante, destinándose este espacio libre a sistema general.

De conformidad con lo establecido con los planos de estado actual de las distintas plantas del Cine Iparraguirre que al presente acuerdo se acompañan, las superficies construidas de este Salón en la actualidad son las siguientes:

- Planta baja: 730,00 m².
- Planta Primera: 736,34 m².
- Planta Segunda: 229,71 m².

A estos efectos, y conforme al Proyecto de edificación presentado en esta Corporación, al amparo de este Proyecto de Modificación se pretende implantar en las instalaciones del antiguo Cine Iparraguirre, una oficina bancaria en planta baja, oficinas del banco (en 552,96 m²) y dos viviendas (183,38 m²) en planta primera y dos viviendas en planta segunda (229,71 m²). Y de esta propuesta, y a tenor de la legislación antes referida, el Proyecto de Modificación de las Normas Subsidiarias debía haber previsto 72 m² de espacios libres calificados de sistema general en este mismo ámbito de actuación.

No obstante, teniendo en cuenta que la zonificación pormenorizada no prohíbe la conversión a uso residencial, en su día, de la superficie destinada en planta primera a oficinas (552,96 m²), la superficie a calificar de espacio libre, sistema general, en el ámbito de actuación se elevaría a 174 m² (considerando una superficie construida de 100 m²/por vivienda, esto es, 9,66 viviendas).

La obtención de este espacio libre en el propio del área RE.1 Ensanche Laskorain resulta totalmente imposible si tenemos en cuenta que esta área RE.1 constituye un área de suelo urbano totalmente consolidado y colmatado, y si consideramos que la actuación que desde este documento se legitima, no supone liberación de suelo alguno, puesto que incide en el interior de un edificio y respecto de algunas plantas de éste. Todo ello sin mencionar la escasa entidad del nuevo espacio que habría de obtenerse, que carecería de entidad, en un entorno, además, bien dotado de espacios libres importantes como son el propio Paseo de San Francisco, la cercana Plaza del Triángulo o los espacios que resultarán de la futura ordenación del área T.6 Alhóndiga (ámbito de equipamiento comunitario).

En este contexto, la Corporación entiende más oportuno remitir la obligación de obtención de este suelo a otro ámbito, en el que, uniendo esta superficie a la que de este mismo pueda ser precisa, se logre un sistema general de entidad, que ofrezca un espacio de calidad y mejore otro entorno urbano más necesitado de espacios libres, y, en general, de desahogo urbano.

En este sentido, la Corporación ha tramitado también recientemente un Proyecto de Modificación de las Normas Subsidiarias en relación a las áreas R.45 Piscinas Igarondo, I.6 Elduarain y R.9 Ibaralde

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05

(provisionalmente aprobado el 27 de julio de 2006 y pendiente de aprobación definitiva), en el que, entre otras cuestiones ha delimitado un nuevo área residencial denominada R.48 Tolosana y donde parece más oportuno ubicar esta superficie, adscrita a la que este mismo ámbito debe generar.

Conforme a la legislación vigente, el Proyecto de Modificación de las Normas relativo al área R.48 Tolosana debe ordenar un espacio libre calificado de sistema general de 1.224 m² aproximadamente, mientras que el documento aprobado ordena un paseo de ribera de la regata Zelai de 1.400 m². (Ello sin considerar los restantes 900 m² aproximadamente destinados a sistema local que en este ámbito también se ordenan). Se acompaña plano de zonificación pormenorizada detallado del área R.48 Tolosana.

Se da cumplimiento con este paseo de ribera, por tanto, a los requerimientos legales en lo que a los dos documentos de modificación de planeamiento general se refiere.

Por todo lo expuesto, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad de los doce concejales presentes, lo que supone la mayoría absoluta de votos,

A C U E R D A :

- Primero.-** Aprobar el plano de zonificación pormenorizada detallada del nuevo área R.48 Tolosana.
- Segundo.-** Excluir del Código de Determinaciones del área y respecto del local de planta baja de San Francisco 1, la posibilidad de destinar esta planta baja un uso residencial, limitando la autorización del uso residencial en este inmueble del Paseo San Francisco 1 a las plantas altas únicamente.
- Tercero.-** Dar cumplimiento al estándar de espacios libres precisos en el área RE.1 Ensanche Laskorain, en la superficie de 174 m²m, en el nuevo área R.48 Tolosana, uniendo esta superficie a los espacios libres, sistema general, que en este ámbito R.48 Tolosana se están ordenando.
- Cuarto.-** Dar cuenta de este acuerdo al departamento de Urbanismo.

5.- Galde-erreguak.

5.- Ruegos y preguntas.

Alkateak komentario bat egin nahi du, Egunkariaren auziari buruz; *“Ez dadila epaiketarik egin eta sobreseimendua eta gaia artxibatzeke eskatuko genuke.”*

Besterik gabe, gaueko zortziretan bilera bukatutzat eman da.

Sin más asuntos que tratar, siendo las ocho de la noche, se da por finalizada la sesión.

ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05

ERANSKINA

2007. ORDENANTZA FISKALETAKO

ALDAKETAK

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05

1.- ZERGAK

1.1. Ondasun higieziinei buruzko zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak erregulatzen dituen ordenantza fiskala

Zerga tipoei dagokienez, proposatu da haiek ezartzea, 2006ko erroldak %4ko gehikuntza izateko moduan. Ehuneko hori da erabiltzen den irizpide orokorra zenbatekoak igotzeko edo eguneratzeko KPIaren arabera.

Simulazio bat egin da 2007 urterako egungo zentsuarekin, % 2ko eguneraketa eginda balio katastraletan eta eraikuntzaren balio galerarekin.

Kuotak eguneratzeko irizpide hau erabiliz, eta kontuan harturik Foru Diputazioak 2007 urterako aurreikusi dituen aldaketak balio katastraletan, zerga tipoak honelaxe aldatu dira:

	2006	2007	Igoera
Zoru industrialeko karga tasa	0,4653%	0,4811%	+ 3,39%
<i>Tipo de gravamen en zona industrial</i>			
Gainerako hiri ondasunetarako karga tasa	0,2573%	0,2639%	+ 2,56%
<i>Tipo de gravamen en resto de zonas urbanas</i>			

Era berean, proposatu da eguneratzea balio katastral maximoa, hobari hau familia ugarietara aplikatzeko. Horretarako, aplikatuko da 2007rako aurreikusitako eguneratze koefiziente (1,4011). Hortaz, balio katastralaren zenbatekoa 85.090 eurotan geratuko da.

Ondorioz batzordeak diktaminatu du Ordenantzaren eranskina aldatzea bi proposamenak sartuz, karga tasak honela utziz:

1.-Hiri Ondasun Higiezienei gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: % 0,4811.

2.- Gainerako hiri ondasunetarako karga tasa: % 0,2639

3.- Landa lur izaerako Ondasun Higiezienei gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %1 .

1.IMPUESTOS

1.1. Ordenanza fiscal reguladora de los elementos esenciales para determinar las cuotas del Impuesto sobre Bienes Inmuebles

Por lo que respecta a los tipos impositivos, se propone establecer los mismos de manera que el padrón del 2006 se incremente en un 4%, porcentaje utilizado como criterio general de aumento o de actualización en función del IPC.

Se ha efectuado una simulación para el año 2007 con el censo actual incluyendo una actualización del 2 % de los valores catastrales y la depreciación de los valores de la edificación.

Utilizando este criterio de actualizar las cuotas, y teniendo en cuenta las modificaciones de los valores catastrales previstas por la Diputación Foral para el año 2007, los tipos impositivos se modifican de la siguiente forma:

Se propone también actualizar el valor catastral máximo a efectos de aplicación de la bonificación a familias numerosas, aplicando el coeficiente de actualización de los valores catastrales previsto para el 2007 (1,4011 %), quedando dicho importe en 85.090 euros.

En consecuencia, la comisión dictamina modificar el anexo de la ordenanza incluyendo ambas propuestas, quedando los tipos de gravamen de la siguiente manera:

1.-Tipo de gravamen aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles: zona industrial o terciaria: 0,4811 %

2.-Tipo de gravamen aplicable al resto de los bienes inmuebles de naturaleza urbana: 0,2639 %

3.-Tipo de gravamen aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza Rústica: 1 %

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05

1.2. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga ordainarazteko zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskala

Beste udalek zer koefiziente erabiltzen dituzten ikusita, batzordeak diktaminatu du % 4ko igoera orokorra aplikatzea. Hori horrela, 2006ko Ordenantzetako 2. Eranskinean agertzen % 1,979ko koefiziente bakarra, 2007an % 2,058koa izango da.

1.3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergako kuotak zehazteko funtsezko elementuak erregulatzan dituen Ordenantza Fiskala.

Proposatuta da aldatzea tarifak, 2006ko erroldak % 4ko igoera izateko moduan.

Kontuan hartuta izango diren salbuespenak minusbaliengatik eta beste arrazoi batzuegatik, benetan % 4ko igoera gertatzeko, ezinbestekoa da koefizienteak % 4,85ean igotzea.

Batzordeari proposatzen zaiona da koefizienteak % 4,50ean igotzea, hau da: 1,970 koefizienteak 2,059ra pasatzea, 1,901 1,987ra eta 1,983 2,072ra.

Tarifa hauekin 2007ko errolda %3,65 igoko litzateke.

Batzordeak proposamenaren alde diktaminatu du eta eranskina honelaxe geratu da:

1.2. Ordenantza fiskal reguladora de determinadas facultades para la exacción del Impuesto de Actividades Económicas en el Municipio

A la vista de la información sobre los coeficientes utilizados por otros Ayuntamientos, la comisión dictamina aplicar el incremento general del 4 %, pasando el coeficiente único del Anexo 2 de la Ordenanza del 1,979% del año 2006, al 2,058% para el año 2007.

1.3.Ordenantza fiskal reguladora de los elementos esenciales para determinar las cuotas del Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica.

Se propone modificar las tarifas de manera que el padrón se incremente en un 4% con respecto al del año 2006.

Teniendo en cuenta la previsión de exenciones por minusvalías u otras causas, para conseguir un incremento real del 4%, es necesario aumentar los coeficientes en el 4,85%

La propuesta que se plantea a la Comisión es incrementar los coeficientes en el 4,50%, pasando el coeficiente de 1,970 a 2,059, el de 1,901 a 1,987 y el de 1,983 a 2,072.

Con estas tarifas el padrón del 2007 se incrementaría en el 3,65 %.

La comisión dictamina la propuesta favorablemente, quedando las tarifas de la siguiente manera:

IBILGAILU MOTA ETA POTENTZIA	POTENCIA Y CLASE DE VEHICULO	Coeficiente	EUROAK 2006	EUROAK 2007
A) TURISMOAK	A) TURISMOS			
9 zaldi fiskal bitartekoak	- De menos de 9 c.f.	2,049	35,52	36,94
9 – 11,99 zaldi f. Bitartekoak	- de 9 hasta 11,99 c.f.	2,049	71,04	73,89
12 – 13,99 zaldi f. Bitartekoak	- de 12 hasta 13,99 c.f.	2,049	118,40	123,14
14 – 15,99 zaldi f.bitartekoak	- de 14 hasta 15,99 c.f.	2,049	165,76	172,40
16 – 19,99 zaldi f.bitartekoak	- de 16 hasta 19,99 c.f.	2,049	213,11	221,66
20 zaldi fiskaletik gorakoak	- de 20 c.f. en adelante	2,049	260,47	270,92
B) AUTOBUSAK :	B) AUTOBUSES			
21 plaza bitartekoak	- De menos de 21 plazas	1,977	158,35	164,68
21 - 50 plaza bitartekoak	- de 21 a 50 plazas	1,977	225,53	234,55
50 plazatik gorakoak	- de más de 50 plazas	1,977	281,92	293,19
C) KAMIOIAK:	C) CAMIONES			
1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria	- De menos de 1000kg.carga util	1,977	80,37	83,59
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.	- de 1000 a 2999 kgs. " "	1,977	158,35	164,68
2.999 - 9.999 kg. bitarteko k.e.	- de más de 2999 a 9999 Kgs. " "	1,977	225,53	234,55
9.999 kg-tik gorako k.e	- de más de 9999 Kgs. " "	1,977	281,92	293,19
D) TRAKTOREAK	D) TRACTORES			
16 zaldi fiskal bitartekoak	- De menos de 16 c.f.	1,977	33,59	34,93
16 – 25 zaldi f. bitartekoak	- de 16 a 25 c.f.	1,977	52,79	54,90

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05

25 zaldi fiskaletik gorakoak	- de más de 25 c.f.	1,977	158,35	164,68
E) <u>TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ATOI ETA ERDI-ATOIAK</u>	E) REMOLQUES Y SEMIRREMOLQUES ARRASTRADOS POR VEHICULOS DE TRACCION MECANICA			
750-1000 kg. bitarteko karga erabilgarria	- de menos de 1000 y más de 750 Kg. carga útil	1,977	33,59	34,93
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.	- de 1000 a 2.999 kgs.carga útil	1,977	52,79	54,90
2.999 kg.tik gorako karga e.	- de más de 2.999 kgs. " "	1,977	158,35	164,68
F) <u>GAINERAKO IBILGAILUAK</u>	F) OTROS VEHICULOS			
Ziklomotoreak	- Ciclomotores	1,977	8,40	8,74
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak	- Motocicletas hasta 125 c.c.	1,977	8,40	8,74
Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartekoak	- Motoc.de más de 125 hasta 250 c.c.	1,977	14,39	14,97
Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartekoak	- Motoc.de más de 250 hasta 500 c.c.	2,062	30,04	31,24
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartekoak	- Motoc.de más de 500 hasta 1000 c.c.	2,062	60,07	62,46
Motozikletak 1.000 cctik gora	- Motoc.de más de 1.000 c.c.	2,062	120,13	124,92

1.2. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala

Angel Yañezek proposatu du ordenantzako Eranskinari atal berri bat eranstea, "Hirigune Historikoa Birgaitzeko Planean sartuta ez dauden eraikinak kontserbatzeko, berritzeko eta hobetzeko obrak". Horri aplikatu beharko litzaioke % 4ko karga tipoa, 6.010,12 euroko zenbatekoraino; eta aurrekontuaren gainontzeko zatia % 3.

Proposamen hau joan den urtean ere egin zen.

Eztabaidatu ondoren, proposamena ez da onartu.

1.5 Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

Batzordeak diktaminatu du:

- 1-5 urte arteko tartearen portzentaia aldatzea, 3,2tik 3,6ra pasatuz.
- karga tasa aldatzea, % 5,18tik % 5,35era pasatuz, %4ko igoera orokorra aplikatuta.

Hortaz, ordenantzaren eranskina honelaxe geratu da:

1.2. Ordenanza fiscal reguladora del Impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras

Angel Yañez propone añadir al Anexo de la ordenanza un nuevo apartado para "Obras de conservación, reformas y mejoras de edificios no incluidos en el Plan de Rehabilitación del casco Histórico", al que se aplicaría un tipo de gravamen del 4%, hasta un importe de 6.010,12 euros, y sobre el resto del presupuesto un tipo del 3%.

Esta propuesta fue realizada también el pasado año.

Tras cambio de impresiones entre los asistentes, la propuesta es rechazada.

1.5. Ordenanza fiscal reguladora del Impuesto sobre el Incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana.

La comisión dictamina:

- modificar el porcentaje del tramo de 1 a 5 años, pasando del actual 3,2 al 3,6.
- modificar el tipo de gravamen, del 5,35% al 5,56 %, aplicando el incremento general del 4 %.

Por tanto, el anexo de la Ordenanza queda de la siguiente manera :

I.	ALDIA – PORCENTAJEAK	
	a) 1-5 urte artekoa – De 1 a 5 años	3,6
	b) 10 urte artekoa – Hasta 10 años	2,8
	c) 15 urte artekoa – Hasta 15 años	2,7
	d) 20 urte artekoa – Hasta 20 años	2,7
II.	TARIFA	
	Karga tasa – Tipo de gravamen	% 5,56

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05**2. TASAK****2.1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik tasak****2.1. Ordenanza fiscal reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades.****2.1.1. Dokumentu administratiboak****2.1.1. Expedición de documentos administrativos**

Batzordeak diktaminatu du tarifei % 4ko goera orokorra aplikatzea.

La comisión dictamina aplicar a las tarifas el incremento general del 4 %

Eranskina honela geratu da:

El anexo queda de la siguiente manera:

DOKUMENTU ADMINISTRATIBOAK	TASAS POR EXPEDICION DE DOCUMENTOS ADMINISTRATIVOS	€ EUROAK 2006	€ EUROAK 2007
<u>ZIURTAGIRIAK</u>	<u>CERTIFICACIONES</u>		
A.1 Udal-bulegoetan egindako gainerako agiri edo datuen ziurtapenak, orriko	Otras certificaciones que expidan las oficinas municipales sobre los documentos o datos por folio	2,18	2,27
A.2 Kokapen bereko hirigintzari dagozkion dokumentuen onarpena adierazten duten ziurtagiriak	Certificaciones de acuerdos relativos a la aprobación de documentos de equidistribución urbanística	1.719,00	1.788,00
<u>LIZENTZIAK, KONTZESIOK ETA BAIMENAK</u>	<u>LICENCIAS, CONCESIONES Y AUTORIZACIONES</u>		
B.1 Aurri-deklaraziozko espedientea tramitatzegatik, Udaletik kanpoko profesionaleri eskaturiko aholkamendu eta txostenen gastuak kobratzearen kalterik gabe, minimoa	Por la tramitación de expedientes de declaración de ruina, como mínimo, sin perjuicio del cobro de los gastos que pueda ocasionar el asesoramiento o informe solicitado a profesionales fuera del Ayuntamiento.	262,00	275,00
B.2 Jarduera gogaikarri, kaltegarri eta arriskutsuen espedientearen tramitazioa, baldin eta irekitzeko baimenarekin batera ez badoa	Por la tramitación de expedientes de actividades molestas, nocivas y peligrosas, siempre que no haya llevado aparejado la correspondiente licencia de apertura	155,00	165,00
B.3 Txosten eta atestatuen bidalketa eta kopiaketa	Por la reproducción y envío de informes y atestados	13,50	14,00
<u>LEHIAKETAK ETA ENKANTEAK</u>	<u>CONCURSOS Y SUBASTAS</u>		
C.1 Ahalordeen askiespena	Bastanteo de poderes	18,30	19,00
<u>BESTERIK</u>	<u>ASPECTOS VARIOS</u>		
D.1 Udal-makinetan eginiko fotokopia bakoitzeko DIN A-4 DIN A-3	Por cada fotocopia realizada en las maquinas municipales DIN A-4 DIN A-3	0,11 0,18	0,12 0,20
D.2 Hirigintza izaerako aurretiazko kontsulta bakoitzagatik, eta kontsulta horrek eraginda Udaletik kanpoko profesionaleri aholkua edo txostena eskatzearen ondorioz sortutako gastuen kobrantzaren kalterik gabe, minimoa	Por cada consulta previa de carácter urbanístico, como mínimo, sin perjuicio del cobro de los gastos que la evacuación de la consulta origine por asesoramiento o informe solicitados a profesionales fuera del Ayuntamiento.	29,20	30,00
D.3 Plano normalen kopiak, metro linealeko edo zatiki bakoitzeko	Copias de planos normales, por metro lineal o fracción	3,65	3,80
D.4 Poliesterrezko plano-kopiak metro edo zatiki bakoitzeko	Copias de planos en poliester, por metro lineal o fracción	21,70	23,00
D.5 Informazio kartografikoa CD-ROMean	Información cartográfica en CD-ROM	21,30	22,00

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05

2.1.2. Hirigintzako baimenak

Batzordeak ontzat jo du Hirigintzako Departamentuak egin duen proposamena, aldatzeko tarifen zenbatekoen egitura eta zenbatekoak, hirigintzaren alorreko espedienteak tramitatzeko.

Halaber, diktaminatu du % 4ko igoera orokorra aplikatzea eranskinaren gainontzeko tarifei.

Ondorioz, honelaxe geratu dira tarifak:

2.1.2. Licencias urbanísticas

La comisión dictamina favorablemente la propuesta del departamento de Urbanismo de modificar la estructura y los importes de las tarifas por tramitación de expedientes en materia urbanística

Asimismo, dictamina aplicar al resto de tarifas del anexo el incremento general del 4 %

En base a ello, las tarifas quedan de la siguiente manera.

	HIRIGINTZAKO BAIMENAK	LICENCIAS URBANISTICAS	€ EUROAK 2006	€ EUROAK 2007
A)	OBRA-BAIMENAK	LICENCIAS DE OBRAS		
	A.1 3.005,06 € (500.000 pta.) bitarteko aurrekontua	A.1 Hasta 3.005,06 € (500.000 ptas.) de presupuesto	29,00	30,00
	A.2 3.005,06 - 6.010,12 € (500.000 -1.000.000 pta.) bitarteko aurrekontua	A.2 De 3.005,06 a 6.010,12 € (500.000 a 1.000.000 de pts.) de presupuesto	58,00	60,00
	A.3 6.010,12 - 30.050,61 € (1.000.000 - 5.000.000 pta.) bitarteko aurrekontua	A.3 De 6.010,12 a 30.050,61 € (1.000.000 a 5.000.000 de pts.) de presupuesto	284,00	300,00
	A.4 30.050,61 – 120.202,42 € (5.000.000 – 20.000.000 pta.) bitarteko aurrekontua	A.4 De 30.050,61 a 120.202,42 € (5.000.000 a 20.000.000 de pts.) de presupuesto	566,00	590,00
	A.5 120.202,42 –721.214,52 € (20.00.000 - 120.000.000 pta.) bitarteko aurrekontua	A.5 De 120.202,42 a 721.214,52 € (20.000.000 a 120.000.000 de pts.) de presupuesto	3.000,00	3.120,00
	A.6 721.214,52- 3.005.060,52 € (120.000.000 – 500.000000 pta.) bitarteko aurrekontua	A.6 De 721.214,52 a 3.005.060,52 € (120.000.000 a 500.000.000 de pts.) de presupuesto	6.000,00	6.240,00
	A.7 3.005.060,52 € (500.000.000 pta.)tik gorako aurrekontua	A.7 Más de 3.005.060,52 € (500.000.000 de pts.) de presupuesto	9.000,00	9.360,00
B)	LEHEN ERABILERAKO BAIMENAK	LICENCIAS DE PRIMERA UTILIZACION		
	B.1 Eraikin eta oro har instalazioen lehen erabilerarako baimenak ehunekotan, eraikuntza, instalazio eta obren zergan lortutako baimenaren zenbatekoaren gainean	B.1 Licencias de primera utilización de los edificios e instalaciones en general, en % sobre el importe de la licencia obtenida en el impuesto sobre construcciones, instalaciones y obras	15%	15%
C)	HIRIGINTZAKO ESPEDIENTE TRAMITAZIOA	TRAMITACION EXPEDIENTES EN MATERIA URBANISTICA		
	C.1 Planeamendu agiri, xehetasun estudio eta urbanizazio proiektu bakoitzeko	C.1 Por cada documento de planeamiento, estudio de detalle y proyecto de urbanización		3.000,00
	C.2 Hirigintza gestioko dokumentu bakoitzeko: exekuzio unitateen mugaketa urbanizazio proiektuak birpartzelatze proiektuak desjabetze proiektuak	C.2 Por cada documento de gestión urbanística: delimitación de unidades de ejecución proyectos de actuación urbanizadora proyectos de reparcelación proyectos de expropiación		2.700,00
	C.3 Hirigintza partzelazioak	C.3 Parcelaciones urbanísticas	75,50	300,00
	C.4 Kontsultak eta hirigintza zedulak	C.4 Consultas y cédulas urbanísticas	113,70	120,00

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05

2.1.3. Establezimenduak irekitzeko baimenak.

Batzordeak diktaminatu du tarifei % 4ko igoera orokorra aplikatzea.

Ondorioz, honelaxe geratu dira tarifak:

2.1.3. Licencias de apertura de establecimientos.

La comisión dictamina aplicar a las tarifas el incremento general del 4 %.

En base a ello, las tarifas quedan de la siguiente manera:

ESTABLEZIMENDUAK BAIMENAK	IREKITZEKO LICENCIAS DE ESTABLECIMIENTOS	DE	€ EUROAK 2006	€ EUROAK 2007
TARIFA OROKORRA ETA MINIMOA	TARIFA GENERAL Y MINIMA			
A.1 Garajeak	A.1 Garages			
A.1.1. Jarduera sailkatuak	A.1.1. Actividades clasificadas		404,00	420,00
A.1.1.1. Sailkatugabeko jarduerak	A.1.2. Actividades no clasificadas		270,00	280,00
A.2 Dendak	A.2 Comercios			
A.2.1. Jarduera sailkatuak	A.2.1. Actividades clasificadas		556,00	580,00
A.2.2. Sailkatugabeko jarduerak	A.2.2. Actividades no clasificadas		371,00	385,00
A.3 Zerbitzuak	A.3 Servicios			
A.3.1. Jarduera sailkatuak	A.3.1. Actividades clasificadas		719,00	750,00
A.3.2. Sailkatugabeko jarduerak	A.3.2. Actividades no clasificadas		479,00	500,00
A.4 Industria	A.4 Industrias			
A.4.1. Jarduera sailkatuak	A.4.1. Actividades clasificadas		959,00	1.000,00
A.4.2. Sailkatugabeko jarduerak	A.4.2. Actividades no clasificadas		639,00	665,00
A.5 Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenak	A.5 Explotaciones agropecuarias		155,00	160,00
A.6 Instalazioen legeztapena (aire girotua, gas deposituak...)	A.6 Legalización de instalaciones (aire acondicionado, depósito de gas ...)		150,00	155,00
A.7 Lokalen azalerak 100 m ² gaindituz gero, tarifak bikoiztu egiten dira.	A.7 En el supuesto de que las superficies de los locales fueran superiores a 100 m ² , las tarifas a aplicar serían el doble			
B) TARIFA BEREZIAK	TARIFAS ESPECIALES			
B.1 Finantza entitateak	B.1 Entidades financieras		8.643,00	9.000,00
B.2 Jolas aretoak	B.2 Salas de juego		4.327,00	4.500,00
B.3 Dantzalekuak eta diskotetak	B.3 Salas de Fiesta y discotecas		12.990,00	13.500,00
B.4 Bingoak eta kasinoak	B.4 Salas de Bingo y Casinos		12.990,00	13.500,00
B.5 Kafetegiak eta kategoría bereziko edaritegiak(pub)	B.5 Cafeterías y bares de categoría especial (Pubs)		6.500,00	6.760,00
B.6 Jatetxeak :	B.6 Restaurantes:			
B.6.1 Bost eta lau sardeskakoa	B.6.1 De cinco y cuatro tenedores		1.729,00	1.800,00
B.6.2 Hiru, bi eta batekoa	B.6.2 De tres, dos y un tenedor		1.300,00	1.350,00
B.7 Bestelako edaritegiak	B.7 Otros bares		869,00	905,00

2.1.4. Auto-taxi eta alokairuko ibilgailuen lizentziak eta baimenak

Batzordeak diktaminatu du % 4ko igoera orokorra aplikatzea. Ondorioz, hauek izango dira tarifak:

2.1.4. Otorgamiento de licencias y autorizaciones administrativas de Auto-Taxis y demás vehículos de alquiler.

La comisión dictamina aplicar el incremento general del 4 %, quedando el anexo de la siguiente manera:

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05

AUTO TAXI ETA GAINERAKO AKURA IBILGAILUEN LIZENTZIAK ETA BAIMENAK		OTORGAMIENTO DE LICENCIAS Y AUTORIZACIONES ADMINISTRATIVAS DE AUTO-TAXIS Y DEMAS VEHICULOS DE ALQUILER	€ EUROAK 2006	€ EUROAK 2007
A)	AUTO-TAXIEN LIZENTZIAK	LICENCAS DE AUTO-TAXIS		
	A.1 Lizentziak eman eta erregistratzea	A.1 Concesion, expedición y registro de licencias		
	Auto-taxi lizentzia bakoitza	Por cada licencia de auto-taxis	9.000,00	9.360,00
	A.2 Lizentzien erabilera eta ustiapena	A.2 Uso y explotación de licencias		
	Lizentzia bakoitza, urteko	Por cada licencia, al año	40,00	42,00
	A.3 Ibilgailuen ordezkapena	A.3 Sustitución de Vehiculos		
	Ordezkapen lizentzia bakoitza	Por cada licencia de sustitución	40,00	42,00
	A.4 Lizentzien transmisioa	A.4 Transmisión de licencias		
	Lizentzia transmisio bakoitza	Por cada transmisión de licencias	9.000,00	9.360,00
B)	AKURAKO AUTOEN LIZENTZIAK	LICENCIAS DE COCHES DE ALQUILER		
	B.1 Kontzesioa	B.1 Concesión		
	Lizentzia kontzesio bakoitza	Por cada concesión municipal de licencia	178,00	185,00
	B.2 Erabilerak eta ustiapena	B.2 Usos y explotación		
	Urteko lizentziaren erabilera eta ustiapena	Por uso y explotación de licencia, al año	27,00	28,00
	B.3 Lizentzien transmisioa	B.3 Transmisión de licencias		
	Baimendutako kontzesiozko ibilgailu aldaketa bakoitza	Por cada cambio de vehículos de concesión autorizada	27,00	28,00

2.1.5. Estolderia zerbitzua

Batzordeak diktaminatu du % 4ko igoera orokorra aplikatzea, kasu honetan izan ezik: estolderia orokorraren zerbitzuak uraren fakturazioaren % 35 izaten jarraituko du.

Uraren eta saneamenduaren ziklo integrala Gipuzkoako Uren Kontsurtzioari ematen bazaio 2007an, aplikatu diren tarifak aipatu Kontsurtzioaren Batzarrak onartuko ditu.

2.1.5. Servicio de alcantarillado

La comisión dictamina aplicar el incremento general del 4%, excepto en el caso del servicio de alcantarillado general que se mantiene en el 35% de la facturación del agua.

Si el año 2007 se procediera a la concesión del ciclo integral del agua y saneamiento al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa las tarifas a aplicar serán las aprobadas por la Asamblea del citado Consorcio.

ESTOLDERIA ZERBITZUA		SERVICIO DE ALCANTARILLADO	€ EUROAK 2006	€ EUROAK 2007
A)	Estolderia orokorra - Ur fakturazioaren % zenbatekoa pezetan - Estolderia hartunea egiteko baimenaren zerga kuota behin bakarrik eskatuko da eta kopurua finkoa izango du.	Servicio de alcantarillado general - Servicio de alcantarillado general, en % de la facturación en pesetas de agua - La cuota tributaria correspondiente a la concesión de la licencia o autorización de acometida a la red de alcantarillado, se exigirá por una sola vez y consistirá en la cantidad fija de	35% 35,05	35% 36,45
B)	Estolderia partikularrak - Kamioia, orduko edo zatiko, Tolosa tarifa - Kamioia, orduko edo zatiko, tarifa orokorra - Txoferra, orduko edo zatiko, Tolosa tarifa - Txoferra, orduko edo zatiko, tarifa orokorra - Peoia, orduko edo zatiko, Tolosa tarifa - Peoia, orduko edo zatiko, tarifa orokorra	Servicio en alcantarillas particulares - Camión, precio por hora o fracción, Tarifa Tolosa - Camión, precio por hora o fracción, Tarifa General - Chofer, precio por hora o fracción, Tarifa Tolosa - Chofer, precio por hora o fracción, Tarifa General - Peón, precio por hora o fracción, Tarifa Tolosa - Peón, precio por hora o fracción, Tarifa General	58,60 88,00 22,20 33,15 20,00 30,00	60,95 91,50 23,10 34,50 20,80 31,20

OHIZKO OSOKO BILKURA

2006.10.05

2.1.6. Zabor bilketa eta ezabaketa

Zerbitzuaren zuzeneko kostuaren estudioa ikusita, sortzen den defizita dela eta beste udal batzuetan aplikatutako tasen konparaketa estudioa eginik, proposatu da tarifak igotzea % 10 inguru. Establezimendu berezien kasuan % 15eko igoera proposatzen da.

Angel Yañezen iritziz tarifa guztientzat % 15eko igoera ezarri beharko litzateke.

Oscar Renedok proposatu du % 4ko igoera orokorra aplikatzea.

Hala ere, zerbitzuaren kostuen igoera nabarmenez luze eztabaidatu eta gero, batzordeak, PP eta PSOEn kontrako botoekin, diktaminatu du hasierako proposamenari eustea. Ondorioz, tarifak honelaxe geratu dira:

2.1.6. Servicio de recogida y eliminación de basuras

A la vista del estudio del coste directo del servicio, del deficit que se genera y el estudio comparativo entre las tasas aplicadas por varios ayuntamientos, se propone incrementar las tarifas en torno a un 10%, excepto en el caso de los establecimientos especiales en los que se propone un 15%.

Angel Yañez considera que se debería aplicar un incremento del 15% para todas las tarifas.

Oscar Renedo propone aplicar el incremento general del 4%.

No obstante, tras un amplio debate en torno a los incrementos significativos de los costes del servicio, la comisión dictamina, con los votos en contra del PP y PSOE, mantener la propuesta inicial, quedando las tarifas de la siguiente manera:

ZABOR BILKETA ETA EZABAKETA	SERVICIO DE RECOGIDA Y ELIMINACION DE BASURAS	€ EUROAK 2006	€ EUROAK 2007
1. Etxebizitzak	1. Viviendas	54,00	60,00
2. Establezimenduak oro har, eta gainerako epigrafeetan jasotzen ez diren industria eta merkataritza zentro, eta zerbitzu profesionalak.	2. Establecimientos en general y centros industriales y comerciales no recogidos en otros epígrafes y servicios profesionales	154,00	169,00
3. Establezimendu bereziak	3. Establecimientos especiales		
3.1. Ondorengo establezimendu motak: arategiak, janaridendak, elektragailuak, ostalaritza, gozogintza eta banka.	3.1. Establecimientos dedicados al gremio de pescaderías, carnicerías, ultramarinos, electrodomésticos, hostelería, pastelería y banca	282,00	324,00
3.2. Supermerkatuak eta antzekoak	3.2. Supermercados y similares	1.200,00	1.380,00
3.3. Maximerkatuak eta antzekoak	3.3. Maximercados y similares	3.000,00	3.450,00
4. Garaje eta lokal edo behe itxiak	4. Garajes y locales o bajos cerrados		
4.1. Lokal itxiak eta 1-4 plazako garajeak	4.1. Locales cerrados y garajes de 1 a 4 plazas	17,00	19,00
4.2. 5-25 plazako garaje kolektiboak	4.2. Garajes colectivos de 5 a 25 plazas	73,80	82,00
4.3. 25 baino gehiagoko garaje kolektiboak	4.3. Garajes colectivo de más de 25 plazas	154,00	169,00

2.1.7. Hilerriaren zerbitzua

